

Deabruen, aztien eta sorginen aldakortasunaren irudia – Aingeru eta deabru gaiztoen aldakortasunaren irudia, sorginei eta sorginkeriarri buruz zabal mintzo dena ¹

Seigarren liburua

Apaiz batek sorginen aurka interpretea edo artekaria izateagatik araua hausten ote duen.

1. Deabruak zalantzaren bat sorrarazten du beti, txikia izanagatik ere.
2. Apaiz batek ezin duela interpretea izan frogatzeko arrazoiak.
3. Sorgin bat torturatua izaten ari den artean konfesoarea izanen den hori galdeketa egiteko hurbil dakion ona ote den.
4. Artekari eta interprete lanetarako berariaz apaiz bat hartu izanaren arrazoiak.
5. Apaiz bera tortura bitartean interprete lanak egiteko eta heriotzaren aitzinetik konfesoare izateko auzibidea.
6. Interprete aritzeko aukeratutako apaizek ez dute inolako arau-hausterik egiten, aitzinetik azaldutakoaren arabera.

¹ De Lancre, Pierre: *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons où il est amplement traité des Sorciers, et de la Sorcellerie*, Berjon. Paris, 1613.

I Tratatua

Gure eginkizunaren hastapenean, zalantza txiki batzuk azaldu zitzaizkigun, Satanek sorrarazi zituenak sorginen mesedetan eta gure nahiak konplitzea atzeratzeko².

Euskaldunen hizkuntza ongi konprenitzen zuen apaiz sekular bat etorri zitzaigun, eta bere burua eskaini zigun bai interpretea izateko bai sorginen auzialdiak eta lekukoen aitortzak azaltzeko.

Hasiera batean harrituta geratu zen, kargu hori hartzekotan arau-hauste bat eginen lukeela adierazi baikenion, eta, beraz, areriores batek apaizaren irabaziak erdietsi ahalko lituzkeela. Guk errandakoa egiaztatzeko, ikaskide izandako batzuekin eta hainbat teologo onekin mintzatu zen elizgizona; haiek argitu zioten interpretearen beharra hurkoaren ideiak eta erranak adieraztean zetzala, modu garbi eta leial batean eta norberaren deus gehitu gabe. Halere, kargu hori onartuz gero, arau-haustea eginen edo sustatuko lukeela ere erran zioten, eta kalonjeek antzeko kasutan arautzen dutena esplikatu zioten. Izan ere, haien arabera, norbaitek bertze bati zerbait egiteko enkargua ematen dionean, edota norbaitek bere borondatez eta agindurik gabe kargua hartzen duenean, gogoan hartu behar da *Ipsius operis periculum, et an opus cui datur opera sit illicitum*. Puntu horretan, hain zuzen, gizakien, lekuaren eta auziaren jatorria nabarmendu beharra dago, eta horretarako, kalonjeek hainbat adibide ematen dituzte.

Haien ustez³, norbaitek arerioa jipoitzeko agindua ematen badu, biktima erailtzea edo gorputz-atalen bat moztea debekatu egin behar du. Aldiz, kargudunak mugak hautsi eta arerioa erailtzen badu edo gorputz-atalen bat mozten badio, agindua eman duenak eta bete duenak arau-haustea eginen dute; izan ere, manamendu arriskutsu hori ematean eta onartzean, biek ala biek arretaz ibili eta kontuan hartu behar zuten heriotza hurbil egon zitekeela. Argi izan behar zuten agindupean ezin dela zafratu, ezta hain indarkeria izugarritz

² Akerrak zalantzaren bat sorrarazten du beti, txikia izanagatik ere.

³ Apaiz batek ezin duela interpretea izan frogatzeko arrazoiak.

kolpatu, ezen jipoia jasotzen ari duena segituan hilko baita. Kolpearen injustizia berak, jasotzeko moduak eta jotzen duenaren gaiztakeriak zauria zornatu dezakete, hasieran txikia izanagatik ere, eta heriotza ekarri.

Karitatez apaiz batek kideren bati tumore bat irekiko balio berunarekin eta suarekin, eta ondorioz eria hil egingen balitz, arau-haustea egingen luke, nahiz eta zirujau aditu batek antzeko eritasun-kasu baten aurrean berdina egin izanen lukeen, *Tua nos de Homicid. in 6* kapituluak dioenez. Arau-haustea egingen da ofizioakoak ez direnek ebakitzea eta zauria suarekin erretzea zeharo debekatua baitute.⁴ Hortaz, eliztar horrek ezinen du *dederit operam rei licit.&* bertzerik erran. Karitatea erru bihurtzen delako. Mediku batek akats bera egingen balu, ordea, ez luke oharpenik jasoko, medikuak aske direlako zigorrik jaso gabe baita gizakiak bertze mundura bidaltzeko ere. Ikasketak hurkoaren kontura egiteaz gainera, legeak hilketa-akusazio guzietatik libratzen ditu medikuak, eta are gehiago, eginiko beharragatik ordainsaria edo soldata ematen die, istripuak istripu.

Bertze apaiz baten gisara, hain zuzen, hurkoaren gorputzetik gezi bat ateratzen saiatu ei zena, jarraian zendu zen gorputz beretik. Hark ez zion eutsi gizon baten manerari, antzeko egoeratan ohikoa denez, eta are okerrago, debekatuta zaizkion kontuetan jardun baitzen.

Kalonjeek antzeko adibide anitz eman zituzten. Hala nola, emakume haurdun batekin larrua jo zuen gizonarena, horren zakar eta modu txarrean ezen haurra galarazi baitzion. Emakumearekin larrua jotzeko eskubidea ote zuen alde batera utzita, arau-haustea egin zuen larrua jotzeko maneragatik: hara, kalonjeek titulu bereko *Sicut*⁵ kapituluak diotenez, *gizonaren ihizian dabila herioa*.

Antzera, zaldian doan norbaitek haur bat hilko balu. Toki egokian balego edo modu hartan aske ibiltzeko eskubidea balu, hots, gauza guziak egindako moduan egiteko baimena balu, ez luke arau-hausterik egingen eta ustekabe huts

⁴ Io Pontanus in charovis.

⁵ *Sicut, Homic.* in 6 kapitulua.

bat baino ez litzateke izanen. Aldiz, arau-haustea ez bairik gabe egin izanen zukeen egoera horiek ez balira titulu bereko *Sicut*⁶ kapituluan zehazten direnak.

Halaber, norbaitek egurra emanen balu dagoeneko hilda dagoen heretiko bat erretzeko, ez luke arau-hausterik eginen; bai, ordea, heretikoa bizirik balego.

Berdin norbaitek apaiz bat aginduko balu tortura-saioretan baino ez present egoteko (gure interpretari maiz gerta dakiokena). Torturatua oinazea bitarte hilko balitz, apaizari agindua betetzeko eskatu liokeenak nahiz agindua beteko lukeenak arau-haustea eginen lukete. Zuzenean edo zeharka errudunak direlako: agindu-emailea batetik, heriotzarekin amaituko zen ekintza sustatzeagatik; eta agindua bete duena bertzetik, manamenduaren azpian ezkututzen zen heriotza-arriskua aurreikusi zezakeelako.

Interprete ez aritzeko arrazoi gehiago aipatu genizkion, guk apaizak bezainbesteko jakin-mina baikenuen, baina hari bezala, guri ere erran ziguten⁷ arau-haustea eginen zukeela, eta kalte handia ekar ziezaiekeela sorginkeriaz akusatutakoei. Euskara biziki ongi ulertu arren, ezin izanen ziezagukeela talentu eta leialtasun berberaz frantsesez adierazi; euskara hizkuntza trinkoa eta adierazgarria izanik, frantsesean jantzia eta iaioa den norbait ere guziz ezgai litzake euskarazko zentzua gordez aitortzen itzultzeko, nahitaezko baldintza zena; hots, sorginen auzialdiei eta lekukoen aitortzei buruzko erabakiak hartzeko ezinbestekoa.

Izan ere, askotan interpreteek aitortza arruntak balira bezala itzultzen zituzten baldintzapeko akusatuen erranak, nahiz eta akusatuen bizitza edo heriotza aitortza horien mende egon; horregatik zen ezinezkoa erantzunetan aldaerarik txikiena ere egitea, ezta hitzen benetako zentzua moldatzea edo aldatzea ere. Hori zen arrazoia Auzitegian beti interprete bi onartzeko. Esperientziagatik dakigu, gainera, anitzetan bi interpreteek gauza bera modu ezberdinetan adierazten zigtela.

⁶ *Sicut, Homic.* in 6. kapitulua.

⁷ Pierre de Lancre bidelagun zituen aholkulari eta laguntzaile taldeaz mintzo da pluraleko lehenengo pertsona darabilenean, Jean d'Espagnet Bordeleko Auzitegiko presidentea tartean. (Itzultzailearen oharra)

Orobat, nahiz eta euskaraz biziki ongi jakin, apaiza ez zen horren trebea frantsesez, eta beraz, ezin izanen lituzke galdeketak egin guk egiten genituen bezain modu premiazkoan, edo agian, modu premiazkoagoan egingen lituzke, euskarak frantsesak baino hitz egokiagoak eta eraginkorragoak zituenean.

Egia erran, beraz, munduko gizonik sainduena eta pasioarekiko zintzoena eta garbiena izanagatik ere, argi dago ezin izanen zukeela interpretea izateak dakarren arazoa saihestu: galdeketak horren bizitasun handiz egitea, ezen akusatuak aitor dezan eragin baitezakegu, ustekabean nahiz bestela. Interprete baten gaitasun guzia horretan oinarritzen da, akusatu bati eginiko galderetako bakoitza aitortza lortzeko tranparen parte bertzerik ez baita. Nolabait, interpretea kondenaren parte zela erran daiteke, galdeketa aurreneko urratsa izaten baitzen, eta horretan eraikitzen baitzen gero epaia. Kontuan hartu behar da jujeek anitzetan notarioei ere laguntza eta auzietarako aholkularitza eskatzen dietela, notarioek kontratugileen asmoak deus gehitu gabe idatziz jartzea bertze lanik egiten ez duten arren. Berdin interpreteek, oraindik juje garrantzitsuagoak eta beharrezkoagoak direnek, euskarazko erranak nahieran itzul ditzakete bai akusatuak bai jujeak engainatzeko eta haien galderak saihesteko; anitzetan, sorginen erantzunei buruzko iritzia galdetu behar izaten diete jujeek interpreteei, emandako aurreneko erantzuna nahikoa iruditzen ez zaienean. Herritarra den heinean, Justiziak eginiko hilketen kopuru izugarriagatik errukia senti lezake interpreteak; edo, apaiza izanik, agian odolarekin atsegin hartu zezakeen apaiz-sorgin anitz azaltzen zirela ikustean, bertzeak baino gehiago mindu baitzezakeen kideen duintasun ezak, funtzio eta eginkizun bera konplitzeko hezi baitzituzten, apaizgoaren ordena sainduaren kargua, alegia.

Bestalde, euskaraz zekiten elizgizonen premiak eta eskasiak maiz eraginen lukeen bai tortura bitartean galdeketa egitea, bai tortura ostean eta heriotza baino lehen konfesore lana egitea. Hizkuntza zekien bertze inor aurkitu ezean, ez zatekeen bidezkoa izanen pertsona koitadu bat hiltzen uztea, damutu eta Jainkoarekin bakeak egin zezakeena, galdeketa egin ezin izateagatik: Akerra aske uztea bailitzateke, herioren atzaparretatik hurbil (hor aritzen baita maisutasunez) koitadua etsipenera bultzatzeko eta nahieran sufriarazteko, abandonatutako arima ezin izanen bailitzateke inolaz ere defendatu.

Del Rio nolabait kontu horretaz mintzo da, hots, sorgin bat torturatua izaten ari den artean, konfesorea izanen den hori galdeketa egiteko hurbil dakion utzi behar denetz⁸.

Gure Aita ez dator horrekin bat, eta laidoak erraten zituen hurbiltzen ziren jujeen eta konfesoreen aurka. *Abusus est certe, dit-il, propter irregularitatis multa quae se hic ingerunt pericula, nam quae ibi necessitas confessari, imo quae utilitas?* Konfesorea present badago baina isiltasuna nagusi bada, tormentua handitu egingen dio torturak jasotzen ari dituenari; egia esatekotan, heriotzaren epaia edo erabakia emateko eguna aurreratu egingen du. *Absit potius et fugiat à tam acerbo et ferali spectaculo sacerdos, seque contaminari putet, si propior adsistas et oculis hauriat hanc carnificinam*⁹. Hori dela eta, goren izatekoak diren gure apaiz aholkulariak ez dira sekula heriotza zigorretara azaltzen, eta ezin dute hilketa-atxilotze bati buruzko iritzirik eman, ezta present egon, aditu edo entzun ere.

Apaizen artean ere, irabaziak galtzeko inongo beldurrik ez dutenen artean, ez baitute ondasunik, ematen da halakorik: apaizetako bat hiltzorian badago eta ohez aldatzeko erregutzen badu, baita ohe berean jiratzeko ere, eta kide erlijioso batek gupidagatik haren eskaeretara men egiten badu, hau da, nahia betetzen badu eta hiltzorian dagoen horren borondatea obeditzen badu, eta beraz, bertze ohe batera eramaten edo jarreraz aldatzen badu eta tarte horretan eria zendu egiten bada; nahiz eta ezin izanen ziezaiokeen inolaz ere gertatuko zenari ihes egin, eria heriotza azkartzeagatik arau-haustea egitekotan, apaizaren ordenako buruak absoluzioa eman beharko lioke.

Horrela, gehitu nahiko nuke lotsagarria dela apaiz batek Deabruak izandako harremani buruzko hamaika galdeketa entzun beharra, hain iraingarriak non pentsatze hutsarekin ikaratu egiten bainaiz. Ongi baino hobeki dakien zerbait erran geniezaioke: akelarrean neba, aita eta bertze ahaide batzuekin harremanak izan dituzten neskatxa lotsagabe horiek, haien senarren aitzinean

⁸ Sorgin bat torturatua izaten ari den artean konfesorea izanen den hori galdeketa egiteko hurbildu dakion ona ote den. Del Rio, 6. lib. 3. atala *de modo confess.*

⁹ Del Rio 6. lib. 3. atala.

adulterioa egin dutenek, naturak kreatura mota guzietan sortu dituen atal zikinenetan Deabruari laztan egin dioten neskatxek, Satanekin kontaktu lizuna izandako horiek berek oso alai eta irritsu jakinarazten dituzte haien besarkada zikinak, baita naturaren tresnen zabalera, luzera eta lodiera deskribatzen ere; horrelako galdeketa nazkagarriek, beraz, ezin dute apaizaren ahotik eta belarri puruetatik igaro iraindu gabe. Galdeketa horietan, gainera, bada irakaspen gaiztoren bat izaerarik hotzena piztea eragiteko gai dena, eta harrapakin baten bila ekitea bultzatzeko, erantzunen bidez aukeratu daitekeen biktima. Izan zen neskatxa bat¹⁰ ere gure apaiz azti guziak salatu zituena; haren erranetan, apaiz guziek neska ederren bat desloratu egin zuten, eta mantentzeaz gainera, akelarrean nahiz akelarretik kanpo harreman lizunak zituzten haiekin, eskandalu handiz, jende guziaren aitzinean eta nahi zutenean. Neskatxa haien izenak eta goitzenak ere zerrendatu zituen. Izan ere, nahi izanez gero, interpreteek lasai asko galdetu eta informazioa eskatu zezaketen gu konturatu ere egin gabe, euskara guziz arrotza eta ezezaguna baitzitzaigun.

Uste dut emandako arrazoiak sobera zilegi direla, eta horregatik, arau-hausteren bat egin izanen zatekeela pentsatzen genuen, zenbait egoerek apaiz erregular hori eta ez bertze bat hautatzera bultzatu ez bagintuzte.¹¹

Termusi idazten zionean Zizeronek bere interpreteari buruz erraten zuen berbera erran dezakegu guk apaiz hari buruz. *Se proconsule in Sicilia, in longa peregrinacione, singularem et prope incredibilem interpretis sui Marsili fidem cognovisse.*

Pertsona leiala zen, prestua, argia, euskal hizkuntza ongi zekiena, gizon zintzoa eta izen onekoa, eta santutasunera gehien hurbiltzen den ogibidea zuen.

¹⁰ Mari Azpilikuetakoa, 19-20 urtekoa.

¹¹ Artekari eta interprete lanetarako berariaz apaiz bat hartu izanaren arrazoiak

Interpreteak aingeruekin eta sainduekin konparatu izan dira¹², Jainkoari pertsona hilkorren otoitz guziak adierazten baitizkiote; hori dela eta, Izkribu Sainduetan erraten da Aita Jaungoikoak hizkuntza itxurarekin bidali zuela Izpiritu Saindua apostoluei, gai guziei buruz ikas zezaten, eta horrela, Jainkoaren nahiaren benetako interprete izendatu zituen.

Baliteke baten batek erratea haren sorterriko hizkuntza gure frantsesa baino hobeki zekiela, eta hobe egin zitzakeela galdeketa frantsesez erantzunak adierazi baino. Alderantziz ere gerta zitekeen, ordea, ez baitzen hari buruz deus txarrik pentsatu behar, eta erran gabe doa, biziki zaila litzatekeela herri horretan apaiz hark baino gaitasun handiagoa lukeen norbait aurkitzea; akatsa hizkuntzaren erruz gertatuko balitz, onartzea baino ezinen genukeen egin, ahalegin guziak egitearekin batera, eta gainerakoa obratu. Ongi dakigu euskara eta frantsesa biziki ezberdinak direla, kasu batzuetan lehena gurea baino eraginkorragoa dela eta bertzetan, aldiz, kontrakoa; gehitu beharra dago hizkuntza guziek haien graziatik eta edertasunetik zerbait galtzen dutela itzultzerakoan. Hori dela eta, oztopo horiek sofritu eta onartu behar dira, ez baita jujeen edo interpreteen erantzukizuna.

Interpreteak galdeketa bizitasunez egiten badu eta egia lortzen saiatzen bada, pertsona orok duen berezko debozio eta joera izanen da haren ekarpen bakarra, eta hori ohikoa da lan bati ekiten dion edo jarduera batean aritzen den edonorengan.

Aldea badago interpreteen eta notarioen artean, bigarrenek interpreteek baino parte hartze handiagoa baitute egiten dituzten ekintzetan: interpretea mutua baita jujerik gabe; notarioak, ordea, absente dagoen aldeagatik mintzatzen eta zehazki adierazten ditu, eta present ez dagoen alde mutu hori mintzarazi egiten du, eta behartu.

Ildo horretatik, aipamen garrantzitsu bat egin nahiko nuke gertaera bati buruz mintzatzeko, gureak baino harrigarriagoa dirudiena. Pierre Arnal maisuak, Bordeleko San Andres eliza metropoliko kalonjeak, Bordeleko Tournelle

¹² Paraletus autem quem miste pater in nomine meo, ille vos docebit omnia.

Ganberaren atxilotzeak sinatzen zituen Pontac eskribaua present egon gabe. Anitz izan ziren sinatutakoak, eta ondorioz, arau-haustea egin zuen; irabaziak kendu zizkioten eta gaindituta geratu zen. Kriminal anitz kondenatu zituen heriotzara, eta sinaduraz parte hartze handia zuen hilketan, baita egotekotan, sorginak heriotzara kondenatzerakoan ere, gure interpreteak ez bezala: erran daiteke hark benetan heriotzarako azken urratsa ematen zuela, atxilotzearen azken zeregina atxiloketa bera sinatzea baitzen. Kondenatuak egon arren, ezin dira kriminalak hil Auzitegiko eskribauak atxiloketa sinatu aitzinetik. Arnal abokatuak erran zuen hori guzia bazekiela, baina ez zuela entenditzen zergatik egin zuen, bere eskuen obra zela, ez ordea adimenarena edo nahiarena. Are gehiago, haur batek, baita irakurtzen ez zekien norbaitek ere, sinatzen baleki, gauza bera egin izanen zukeela; betebeharra baino ez zela, eta ez zegoela bere borondatearen esku. Kontua ez zen erabaki, aldeekin adostu baitzuen.

Erran behar da kanonistak erabili zituzten adibideen egoerak eta arrazoiak ezberdinak zirela gureekin alderatuta. Halaber, Del Rio Aita onak ez zituen sekula ezagutu Lapurdiko eta Britainia Behereko sorginen berezitasunak, prozesua egiteko interpreteak eta artekariak behar diren lekuetakoak, alegia. Euskaraz mintzo diren apaizen eskasia jakin izan balu, izen onekoa eta apaiza zen gure interpretea onartu izanen zukeen konfessore izateko; horrela, Satanek ez luke inolako abantailarik izanen inor berekin infernura aise eramateko, laguntzarik edo borrokarik gabe. Bada, eginkizunak edo karguak onura eta aukera handiak eskaintzen dizkio erlijio kristauari sorginek Jainkoari eginiko iraina ezabatzeko, eta, beraz, elizgizonak preseski desio eta opa zezakeen zeregina da.

Hala bada, apaiza izanagatik ez genuen inolaz ere interprete aritzeko baztertu; alderantziz, poztasun handiz onartu genuen, Baionako Jaunaren oniritzia ere izan baikenuen, hots, Baionako elizbarrutiko apezpikuarena; beti prest egon izan baita gizartearen kiratsa diren horiekin akabatzeko, eta nola ez, artzain ona den heinean, bere artaldea jendilajetik libratu nahi ditu, eta higuin guzia garbitu. Apezpiku jaunak interpretearen zintzotasuna eta leialtasuna antzeman zituen, eta konturatu egin zen kutsaduraren hedapena eta erien kopurua biziki handia zenez, susmagarri ez ziren interprete gutxi aurki zitezkeela. Gainera, aitzinean izanen genituen sorginkeriaz akusatutako apaizek askoz konfiantza

handiagoa izanen zuten haien ogibide bereko apaiz batekin, bertze inorekin ez bezala.

Halere, horrenbertze ziren goiz bakarrean eta etengabean galdeketa egin behar zitzaizkien sorginak, hark bakarrik ezin izaten zuela hori guzia egin, eta beraz, batzuetan bertze zenbait apaiz hartu behar izan genituen interprete aritzeko; hori bai, guziak ziren aipatutako Baionako Jaunaren etxeok, kalonjeak, hizkuntza zekiten jatorri oneko kideak. Eta zenbaitetan, beren bikario handia ere erregutu egin genuen konpasioz etor zedin galdeketa eta otoitza egitera, eta batzuetan baita sorginei arao egitera ere, inolako kristau-laguntzarik gabe edo bertzelako araubiderik gabe hiltzorian baitzeuden. Biziki onuragarriak izan ziren, eta ez genuen Del Riok azaldutako eragozpenik edo arazorik izan; alderantziz, bederatzi edo hamar apaiz akusatu genituen eta, Baionako apezpiku jauna ez zegoenean, bere bikario gorenak zuen horietako bakoitzaren aurka eginiko auzibide eta araubide osoan present egoteko ardura. Kondenatutako apaizak eta beren moral-nahastea bereziki ongi ezagutzen zituen bikario hark, horregatik konfesatzen zioten xaloki nahi zuen guzia eta lasaiago mintzatzen ziren harekin, areriotzat zuten bertze apaiz interprete batekin baino. Ondorioz, eragozpenak alde batera utzita, hamaika izan ziren irabaziak, Jainkoaren zerbitzura eta herriaren mesedetan.

Eta ez dugu pentsatu behar ohorezko jende eta kristau on haiek sorginek isiltasuna gorde zezaten eragin zutenik, tortura bitartean interprete edo galdetzaile eta ondoren konfessore lanetan ari zirenean; sorginak berak baino sorginagoa izan behar baita hori egiteko. Egia erratera baino ez zituzten bultzatzen, *neque ideo mortis sententiam accelerabant*, tortura jaso aitzinetik ere heriotzara kondenatuak baitzeuden; hildako guzietatik hiru baino ez ziren izan froga osagarri moduan tortura jaso zutenak, bertzetan aski froga baitziren.

Horrela kontuak, erran behar da gure interpreteak elizbarrutiko apezpikuaren oniritzia zuela eta kide batek laguntzen zuela eginbidean, aitortzak nahieran ezin moldatzeko eta gauza bat bertze baten orde ezin errateko. Interpreteek *omnia agere ad praescriptum debent*, haien ikaskizuna zuten, manatu bat, eta ezin zuten inolaz ere hori gainditu. Gainera, jujamenduaren aitzinetik

akusatuen aulkian galdeketa egiten zieten berriz sorginei gure kide eta laguntzaileen begiradapean, gehienek euskaraz zekitenak; ondorioz, errandako guziak ezinezko egiten zuen arau-hausterik gertatzea.

Gerora, agustindarren elizgizon batekin izan nintzen, sorterriz Lapurdikoa baina Bordelen bizi dena. 1610eko irailaren 3an Tournelleko auzitegiak elizgizona deitu egin zuen interprete aritzeko; Kattalin Bardoze izenaz ezaguna zen Katalina Barrendegikoa, hots, Haltsuko parrokiako sorgin entzutetsua torturatzea agindu zuten komisarioentzat aritu zen agustindarra interprete, eta ondoren, tormentuan sorginaren konfessore izan zen¹³. Sorgin hark torturapean eta hil baino lehen, hainbat gauza konfesatu zituen, aitzinetik bertze sorginei sekula entzun ez genizkienak. Horrela, elizgizon hark interprete eta konfessore jardun zuen, nahiz eta herri-hizkuntzako konfessoreak torturan present egotea ohikoa ez den, aitortzaren orduan baino ez. Baina, noizean behin, jujeek aldizkako jendea hartu behar izaten dute, aurkitzen duten aurrena; arrazoia da euskaraz dakien jende gutxi dagoela, jujamenduek lehentasuna dutela eta jujeak zentzudunak eta zuhurak direla, akusatuen aulkian kriminal bat izateak premia eragiten baitu eta ezin baitute hiri guzian interprete baten eskean ibili edo artekari bat noiz aurkituko zain egon, are gutxiago interprete aritu daitekeen edonor badago auzitegiaren atarian.

Amaitzeko¹⁴, beraz, ondorioztatu behar da interpreteek edo artekariak ez dutela inolako arau-hausterik egiten, hori bai, deus gehitzen ez badiete jujeek agintzen dizkieten galdeketei edota gaizkileen erantzunei. Ezin erran dezakegu iturri baten ubidea uraren sorburua denik, nahiz eta ubideari ura dariola ikusi; edo tutu batetik durundatzen eta aireratzen den hitza tututik oihukatu dugun soinu edo hitz bera denik; halaber, ahots tinko batek harkaitz batzuen aurka jotzen eta oihartzuna eragiten duenean, ezin dezakegu erran harkaitzen harri gogorra eta

¹³ Apaiz bera tortura bitartean interprete lanak egiteko eta heriotzaren aitzinetik konfessore izateko auzibidea.; Duhalde elizgizon agustindarra, Lapurdin sortua.

¹⁴ Interprete aritzeko aukeratutako apaizek ez dute inolako arau-hausterik egiten, aitzinetik azaldutakoaren arabera.

bihozgabea denik hitz errepikatuak ahoskatzen dituen, zenbaitetan hiru, bost, zazpi eta baita bederatzi aldiz ere. Interpretreak benetako oihartzunak dira, isiltasun iraunkorra gordetzen dutenak hurkoa mintzo ez bada, eta haiek dira beti azken hitza erran behar dutenak; ezin dira mintzatu bertzea mutu badago, ezta mututu ere bertzea isildu baino lehen; mintzatu behar dira bertzea mintzo bada, beti ere hitzak moldatu gabe eta erraten zaizkien tonu edo garratasun berarekin ahoskatuz.

Halere, aurreko guziak ez du erran nahi nire borondatea auzi hau erabakitzea denik, ezta alde bateko zein bertzeko arrazoi ahulekin konpondu edo ebatzi nahian nabilenik. Alderantziz, teologoei hertsatzen natzaie erabat, eta kontent nago egoerak baino azaldu ez ditudalako.